



ATE IREKIEN JARDUNALDIA INTERPRETAZIOA: ORGANOA 2023-03-16

Nori zuzenduak?

Graduko Organo interpretazio ikasketak **Musikenen** egiteko interesa duten musika ikasleei zuzendua

Sarrera probak 2023-2024 edo 2024-2025 ikasturteetan egingo dituztenen izen-ematea onartuko da. Sarrera proba horietara ikasleak prestatzeko asmoa duten **irakasleentzat** ere irekita egongo da.

Jardunaldia aurrez aurre egingo da. Parte hartu ahal izateko **aurrez erreserba** egin behar da **izena emateko orria** betez. Epea **2023ko martxoaren 9an** amaituko da.

Parte-hartzaileak jardunaldira **laguntzaileekin** joatekoak badira, horien kopurua adierazi beharko dute izena emateko formularioan.

Jardunaldiaren helburua

Organo interpretazio Gradua egin nahi duten ikasleei informazioa eta orientazioa ematea: sarrera proben egitura, eskatzen den maila, espezialitatearen eta ikasketa planeko irakasgai ezberdinen helburuak, bai eta irakasleak ezagutzea ere.

Non egingo den

Musikene, Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegia
Europa Plaza, 2. 20018 Donostia-San Sebastián
Telefonoa: 00 34 943.023.750
E-maila: info@musikene.eus
<https://goo.gl/maps/jtNTDighrRG2>

Jardunaldiaren egitura

LANDART, Esteban

9:30 Bilera informatiboa, bertan azalduko dira **Musikeneren** nondik norakoak, Graduko ikasketa planak, osatzen duten irakasgaiak eta irakasten dituzten irakasleak, **Musikene**k eskaintzen dituen aukera eta proiektuak, sarrera proben egitura eta zehaztasunak, ikasketetan sartzeko betebeharrak eta epeak. Ikastegiari bisita gidatua egingo zaio.

10:30 Donostiako San Vicente elizara joatea

11:00-13:00 Donostiako San Vicente eliza. Esteban Landart irakaslearen eskutik eskola irekiak Musikeneko ikasleei eta jardunaldian parte hartzen duten ikasleei (errepertorio erromantikoa, sinfonikoa edo garaikidea). Cavaillé-Coll 1868. III+P/35 organo sinfonikoa.

<http://organos.gipuzkoakultura.net/html/organos/donostiasanvicente.htm>

15:00-17:30 Donostiako Loiolako eliza. Esteban Landart irakaslearen eskutik eskola irekiak Musikeneko ikasleei eta jardunaldian parte hartzen duten ikasleei (errepertorio barrokoa edo garaikidea). Klais II+P/17 organoa

<https://orgelbau-klais.com/m.php?tx=22>

Organo jardunaldiari buruzko informazio akademiko espezifiko gehiago jasotzeko jarri harremanetan José Antonio Candaudap Teklatu eta Kantu Departamentuko buruarekin: dpto.tecladocanto@musikene.net